

## ZAINTZEKO GARAIA, SORTZEKO GARAIA

### 1. Zer da ekologia integrala?

Ekologia izaki bizidunek beraien artean eta bizi diren ingurunearekin dituzten harremanak aztertzen dituen zientzia da. XIX. mendearen bigarren erdian sortu eta ondu zen ekologia hitza (E. Haeckel), nahiz eta bere aztergaia betidanik izan den pertsona guztien interesekoa. Izan ere, Aristoteles da (K.a. IV. mendea) zientzia horren aita ponteakoa.

Ekologia eta ekologismoa ez dira sinonimoak: zientzia bat da ekologia, eta ingurumena kontserbatzea helburu duen mugimendu sozial eta politiko ekologismoa. Bi terminoak baliokideak ez badira ere, lotura-puntu ageriko hau dute: natura babestea, bizi-eremu den aldetik.

Ingurumena zaintzeko zer egin behar den arakatzean, bereziki aztertu da zer eginkizun duen gizakiak ekosistema globalean eta nola eragiten duten prozesu ekologikoetan. "Garapen jasangarria" kontzeptuak (Brundtland txostena, 1987) garrantzi handia izan du ingurumenarekiko sentsibilizazio-prozesu gero eta handiago horretan: gizakiak egungo beharrak asetzeko gai izan behar duela esan nahi du, etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan jarri gabe. Eredu politiko eta sozial jasangarria eta bidezkoa eraiki behar da garapen jasangarri hori lortzeko.

Frantzisko aita santuak "Laudato si, denona den etxea zaintzeaz" entziklika argitaratu zuen 2015ean. Natura eta pertsona guztiak zaindu behar ditugula diosku aita santuak entziklikan eta berezi aztertzen ditu Jainkoaren, pertsonen eta Lurraren arteko harremanak.

Frantziskoren esanetan, ingurumen-arazoak ez ezik, aztertzeak dira pertsonen testuinguruak, lana, familia, ekonomia eta gainerako alderdiak, eta baita pertsona bakoitzak gainerako pertsonekin, natura-baliabideekin eta, oro har, planetarekin dituen harremanak ere. Horregatik guztiagatik, Frantzisko aita santuak ingurumen-ekologia aipatzen du, baina baita ekologia ekonomikoa, soziala, kulturala eta humanoa ere. Interkonexio globalizatuen bilbe hori ekologia integrala dela esaten du.

### 2. Zergatik orain?

Agerikoa da gizartea gero eta kezkatuago dagoela gure planetaren geroarekin; hortaz, aukera-aukerako unea dugu gaiari heltzeko.



Kristau-erakundeok eta fededunok gonbidapen argi hau jaso dugu: geldi gaitezen une batez eta hausnar dezagun pertsonen eta planeta deritzogun ingurune fisiko, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalaren arteko harremanaren nolakoaz.

La Salle instituzioak ekologia integralaren ikuspegia erantsi nahi die bere salletar balioei, Fedeari, Senidetasunari eta Zerbitzuari, barrutiko hezkuntza-elkarte osora zabaltzeko, eta horixe bera egin nahi dugu gure misio ebanjelizatzailea eta hezitzailearekin.

### **3. Justifikazioa**

La Salle ikastetxeetan, zaindu egiten gaituzte, zer beharizan ditugun jakiten ikasten dugu eta, ikastetxe bakoitzetik abiatuta, mundura zabaltzen gara, elkar zaintzeko eta mundu hobea egiteko guztiontzat. Elkartean ikasten dugu hori guztia.

Eskolan bizi dugu salletar ekologia integrala, eragile guztion artean, ikasgelan, ikastetxean eta gure bizi-ingurunean egiten ditugun ekintza guztien bidez.

#### **3.1. Munduari begira, eskolatik**

Ekologia integrala eta denon etxea zaintzea, horiexek izan dira 46. Kapitulu Orokorreko konpromisoak salletar hezkuntza-sarearentzat eta erakunde guztientzat. Hori horrela, justiziaren alde lan egiteko eta denon etxea zaintzeko gonbidapena egin digu Salletar Hezkuntza Misiorako Nazioarteko III. Asanbladak.

Bizitza-zati bat da pertsona bakoitza eta, gurean, mundua eraikitzen saiatzen gara egunero, ikasgelako, ikastetxeko eta mundu osoko gainerako ikaskideekin batera.

La Salle ikastetxeetako hezkuntza-komunitatea osatzen dugunok goizero galdetu nahi diogu geure buruari zein den geure lekua munduan, kontuan izanik guri dagokigula hura sortzea, planetan bizi garen guztiok harmonian bizitzeko etxea, gure etxea, eraikitzea. Hezitzaileak, familiak, ikasleak eta ikastetxeko gainerako langileak elkartzeraz gonbidatuta gaude ikasturte honetan, Aitarengandik datorkigun oparia zaintzeko, gure aurrean baitaukagu bidean. Horrenbestez, barnetasuna lantzea eta zaintzea dagokigu ikasturte honetan, gure egoera onartzea, geure mugak ikustea eta gure dohainak ezagutzea, baita, era berean, besteen mugak eta dohainak onartzea eta balioestea ere. Bide horretan, guztiok Jainko sortzaileak eginak garela ohartuko gara.

Salletar elkarrekin kide guztiok munduko pertsona guztiarekin partekatzen dugun itunaren jakitun izan behar dugu: gure dohainak lurraren alde erabiltzea dagokigu, konpromiso betean, naturarekiko elkarrekotasunean eta hurrengo belaunaldien zerbitzura.



Frantzisko aita santuak hau ohartarazten digu (LS 117): ez dugu naturan bizi diren gainerako izakiekiko lotura-sentipen hurbilik izango, baldin eta ez badugu bihotzean pertsonetikiko samurtasun, erruki eta kezka egiazkorik.

Frantzisko aita santuaren eskutik datorkigun konpromiso hori betetzean, elkarrekin eraikiko dugu geroa (LS 202). Salletarrontzat, Ebanjelioaren berri emateko modu hori hiru balio hauen bidez gauzatzen da: fedearen bidez, zerbitzuaren bidez eta senide-elkartearen bidez.

### 3.2. Zer zaindu nahi dugu?

Azken kapitulu orokorrean geure egin dugu justizian hezteko konpromisoa, pedagogia eta pastoralak bitarteko izanik. Hala, bakearen eta justiziaren alde arituko gara, eta kreaioaren osotasuna zainduko dugu (2022 Kapitulu Orokorreko Dokumentuak, 1.1 konpromisoa).

Planeta zaintzea dagokigu; hala, hezitzaile, ikasle eta familia garen aldetik, mundua nola zaindu galdetu behar diogu geure buruari; ingurune hurbilean eta globalean zer konpromiso dugun aztertu behar dugu, elkar zaintzen ikasi eta desberdintasunak murriztu (10. GJH). Hezkuntza Itun Globala sinatzean, gure talentua planetaren geroaren alde erabiltzeko konpromisoa hartu genuen, denon etxea zaintzeko, natura-baliabideak babesteko, bizimodu xumeagoak izateko, eta energia berriztagarrien eta ingurumena errespetatzen duten energien alde egiteko.

Lotura zuzena dute ekologia integralak eta guztion onurak (LS 156): kristau eta salletar moduan ikusten dugu bizitza, eta horrela ikusten ditugu, noski, ingurumen-gaiak, gai sozialak eta gai humanoak. Ikastetxean, ikasgelan eta familiekin aritzen garenean, transmititzen ditugun kontsumo-irizpideez ohartu behar dugu. Gure ebanjelio-konpromisoak besteenganako bizi-ekintzatan aritzera deitzen baitu, eta gogo bereziz aritzera behartsuen diren pertsonen alde (LS 158).

Ingurune bizigarria eta zoriontsua eraiki eta osatzeko eragile izan behar dute pertsonen arteko harremanek, lanean, senideen artean eta kideen artean. Harreman hotz edo urrunak baldin baditugu, gure bihotzean bestea(k) hartzeko konpromisoa hauspotzen jarraitu behar dugu (LS 4).

Guztion etxea zaintzea mundu hobe baten aldeko esperantza adieraztea da, ikasgelan ikasleekin egiten dugun lanean inplikatzeko. Hori guztia, finean, hezkuntza-komunitatearen ekintzen multzoaren bidez adierazten dugu. Oinordetzan hartu ditugu gure ingurunea, gure bizitokia, gure eskualdea, gure herria, gure planeta, eta ingurune hori arretaz zaintzea dagokigu, guztientzat eta guztien alde ematea.

Jarrera horiek egunero transmititzen ditugu harreretan, egunez egun ikusten ditugu proiektuetan, mintegietan eta narratibetan, ikasgeletako



elkarrizketetan eta gizarte-hezkuntzako obretan, eta eskola-komunitateko kideen eguneroko konpromisoan kutsatzen dira.

### 3.3. La Sallen elkarri esaten diogu

Gure fundatzailea zaintzaz ari da bere idatzietan (Araudia): La Salleko Joan Bautistak maiz esan zuen gure ekintzak zaindu behar ditugula eta ikasleak zaintzea dagokigula (Hastapenetako Memoriala), eta Jainko Aitarengandik jasotako zainketa gogorarazi zigun (Jai-egunetako Meditazioak, 172). Besteren ardura hartzea eta besteak zaintzea da salletar konpromisoa; behar handiena duten ikasleak hartzen dituzte salletar hezitzaileek (29. araua), haien anaia nagusi sentitzen dira eta pertsona gisa hazteko lekua uzten diete beti.

Salletar espiritualtasuna eta espiritualtasun ekologikoa elkartean bizi direla esan dugu idatzi honen hasieran. Denon etxea ganoraz zaintzeko, guztion artean zaindu behar dugula bizi eta azaldu genuen Salletar Hezkuntza Misiorako Nazioarteko III. Asanbladan. Mundu hobe baten itxaropena dakarkigu zaintza horrek, bidezko jendarte baten aldeko jardun gogotsua, konpromisoan biziko diren herritarrak ontzeko bidean.

Gauden lekuan baliabide gutxien dituzten familien bizitza duina bultzatzea da gure helburua tokian-tokiko boluntariora egiten dugunean, nazioarteko boluntariora aritzen garenean, salletar garapenerako GKE-ek lanean aritzen direnean eta aukera politikoak eta sozialak egiten ditugunean.

Eginkizun handi hau eman zaigula gogoratu digute Nazioarteko azken Asanbladaren agiriak: legamiaren antzeko izatea (Lk 13, 18-21), proiektu itxaropentsuak hartitzeko; gatz izatea, harreman biziak egiteko; eta salletar izarraren argiaz ekitea, fedearen bidez sentitzeko gu guztion baitan dugun biziaren Jainkoa.

